

## Ospakizunen eta ekitaldien agenda

GOTZON OTXOA



### \* Irailaren 10a, asteartea

#### AZKAINE

- \* **Euskal Kostaldeko Musika zikloko kontzertua** Rafael Puyanarekin eta Orkestra Erregionalarekin herriko elizan gaueko 21:00etan.

#### BERMEO

- \* **Untxi lehiaketarako izena ematea** hasiko da Almikeko zelaian eguerdiko 12:00etan. Leku eta ordu berean sokatira eta trikitixa izango dira.
- \* **Untxi lehiaketako kazolak** aurkeztuko dira epaimahaia- ren aurrean eguerdiko 13:30etan.
- \* **Eskubaloi partiduak** Artza frontoian arratsaldeko 15:45etan. Bermeok Mundakaren aurka jokatu du kadeteen, gazteen eta seniorren mailan (15:45etan, 17:45etan eta 19:00etan).
- \* **Untxi lehiaketaren sari banaketa** egingo da 16:30etan Almiken.
- \* **Umeen danborrada Ortiz bandagaz** arratsaldeko 17:00etan. Ibilaldia Atalden hasi eta bukatuko da.
- \* **Idi-demak** Almikeko probalekuan arratsaldeko 18:00etan. Bermeoko Herri Kirol Zaleak taldeak antolatutako Bermeoko Udaleko XI. Sari Nagusia izango da.
- \* **Dantzaldia Ortiz bandagaz** eta nagusientzako Dantza Txapelketa Lamerako kioskoan arratsaldeko 20:00etan. Lehenengo 3 bikoteentzat afaria izango da Bermeoko jatetxe batean.
- \* **Dantzaldia Luhartz** taldeagaz Lameran gaueko 22:00etan.
- \* **Su artifizialak** Caballer pirotekniaren eskutik Matxi-korta kaian gaueko 23:00etan. Ondoren zezen-suzkoa izango da Lameran.

#### BIDARTE

- \* **Pilota pariduak** frontoi handian gaueko 21:30etan.

#### DONIBANE-LOHIZUNE

- \* **Zestapunta partiduak** gaueko 21:00etan Jai Alain.

#### HONDARRIBIA

- \* **Segurako alborada** egingo dute Hondarribiko Musika Eskolako txistulariek goizeko 08:30etan.
- \* **Meza Nagusia** Jasokunde eta Sagarrondoko Ama Birjinaren elizan, 1838ko hiriko setioan hildakoen alde. Elizkizunak irauten duen bitartean herriko konpainiak, ofizialarekin eta kantinerarekin hiriko bandera agurtu eta artilleriarekin batera deskargak egingo ditu. Meza bukatzean Parrokiako abesbatzak Perosiren *Liberame* abestuko du.
- \* **Erraldoiak eta buruhandiak Musika Eskolako trikitilariarekin batera kalez kale** ibiliko dira goizeko 11:30etan.
- \* **Sokamuturra** Bentan eguerdiko 12:30etan.
- \* **Adinduen bazkaria** Jostaldi kiroldegian 14:30etan Klink fanfarrearekin. Ordu berean herri bazkaria izango da Bentan trikitilariak eta bertsolariak bertan direla.
- \* **Plater tiroketa** San Telmo tiro zelaian arratsaldeko 15:30etatik aurrera.
- \* **Haur jolasak** Arma plazan 17:00etan. Bertan izango dira antzerkia, jokoak, magia, musika eta abar. Azkenik txokolatada izango da.
- \* **Anje Duhalderen kantaldia** izango da Santiago plazan gaueko 22:00etan.
- \* **Camp berbena** Kasino zaharreko lorategian Los Pasai taldearekin gaueko 11:30etan.
- \* **Gozategi anai-arreben kontzertua** gaueko 23:30etan Bentan.

#### MIARRITZE

- \* **Dantzak.** *Le temps d'aimer* dantza zikloaren barruan Zaragozako Paolo Mohovich ariko da gaueko 21:00etan herriko kasinoan.

#### LIZARRA

- \* **Antzinako Musikaren Astearen kontzertuak** izanen dira aste honetan igandera arte. Kontzertuak egunero izango dira San Miguel elizan arratsaldeko 20:00etan.
- \* **Trikimako tailerra** hasi zen atzo eta irailaren 30era arte iraunen du. Izena eman edo argibideak nahi dituenak dei dezala Gazteria Bulegora: (948)548224.

#### OÑATI

- \* **Oñatiko Jaixak 96 pegatinarako lemaren lehiaketa** antolatu du Laixan euskara elkarteak. Parte hartu nahi dutenek euskararen aldeko lema orijinalak egin beharko dituzte. Horretarako, herriko hainbat tabernatan eta Gaztelekuan banatu diren orriotan lema, izena eta telefonoa idatzi eta bertan izango den kutxan sartu besterik ez da egin behar. Pertsona bakoitzak nahi beste lema aurkez ditzake. Epea irailaren 15ean bukatuko da, eta irabazleak 10.000 pezetako saria irabaziko du. Horrez gain, partehartzaile guztien artean bost kamiseta zozketatuko dira.

#### ORDIZIA

- \* **Elkarteen arteko VI. Sukaldaritza Lehiaketa** izango da Plaza Nagusian. Sukaldariak bertako produktuak erabiliz prestatuko dituzte jakiak. Ordu berean, Goierriko II. Odolki Onenen Arteko Lehiaketa eta Probaketa egingo da.

#### SARA

- \* **Herriko bestak** hasi dira. Gaur, denetariko ekitaldiak izanen dira herriko fron-

toian: pilota partiduak, kontzertua, jokoak, kantak, dantzak...

#### ZESTOA

- \* **Txistulaien kalejira** goizeko 10:00etan. Ordu berean umeek egindako marrazkien erakusketa izango da.
- \* **Herri alkateak haurren alkateari herriko aginte ikurra eskainiko dio** goizeko 11:00etan.
- \* **Haurren udal batzarra eta kalejira zaratsua** 11:30etan. Egunean zehar Incansables txaranga izango da kalean.
- \* **Umeen festen hasiera** eguerdiko 12:00etan. Ondoren, umeen entzierroa eta zezen enbolatuak eta pony-ak.
- \* **Azkona pailazoak** izango dira plazan 16:00etan. Ondoren, umeentzako enbolatuak eta pony-ak hondarretan. Azkenik, bitsa jaia egingo da Laranjadin.
- \* **Itxaropena dantza taldearen emanaldia** kiroldegian gaueko 22:30etan.
- \* **Dantzaldia** Almen taldearekin goizaldera arte.
- \* **Irailaren 11a, asteazkena**
- \* **ZANGOZA**
- \* **Txupinazoa** Udaletxeko balkoitik festen hasiera ira-

gartzeko. Bertan Udal Bardaren, txarangaren, gaiteroen eta txistularien desfilea izanen da. Hori eguerdiko 12:00etan izanen da.

- \* **Umeentzako traka eta lehergailu japoniarra** Galerian eguerdiko 13:00etan.
- \* **Kafe kontzertua txarangaekin** 16:00etan.
- \* **Udaleko kideak**, erraldoiak eta buruhandiak, gaiteroak eta bandak lagundurik San Salvador elizara joanen dira Bezperak eta Salbea entzutera 17:00etan.
- \* **Rocamador dantza taldearen emanaldia** izanen da arkupeetan 17:45etan.
- \* **Abereen askatzea** 18:30etan.
- \* **Herri dantzak** gaiteroekin arkupeetan 20:00etan. Jota zahararekin amaituko dute.
- \* **Dantzaldia** Metropolis taldearekin Galerian gaueko 21:00etan.
- \* **Zezen-suzkoa** izanen da gaueko 22:00etan.
- \* **Subidica al Prau** gauerdiko 00:00etan.
- \* **Dantzaldia bandarekin eta gaiteroekin** Prau-1 00:30etan.
- \* **Bajadica al Prau** 01:30etan.
- \* **Dantzaldia** Metropolis taldearekin 02:00etan.



\* Gau musikal ezin hobea izango dute gaur Hondarribira hurbiltzen direnek. Izan ere, 22:00etan Anje Duhalde kantari lapurtarraren kontzertua ikusi ahal izango dute Santiago plazan, eta, gero, 23:30etan Gozategitarak ariko dira oholtzaren gainean Bentan. **Irailaren 10a, asteartea.**  
MANU MUJICA